

Kapitalismoa

Joxe Azurmendi

I.- Kontzeptua

Kapitalismoa, lehenik, *sistema ekonomiko eta sozial bat da, lanerako indarraren beraren eta *lanaren produktuaren *merkatu librean kapitalaren baliapenak produkzio-faktoretzat erabakitako *egitura ekonomiko eta sozialez, prozesuz eta harreman-moduz agertzen dena; eta, bigarrenik, sistema hori aurreratu den eta hark ezaguterazten duen aldi historikoari ere esaten zaio.

Produkzio-modu espezifiko gisa, kapitalismoa, *feudalismoa gaindituz etorririk, «*produkzio-prozesu sozialaren azkeneko molde antagonikoa» da, Marxen arauera, eta bere garaian produkzio-modu sozialista (ik. SOZIALISMOA) ez antagonikoa, ordeztuko dituen. Produkzio-modu kapitalista erabateko merkatu-ekonomia da, historian ikusi den erabateko bakarra, bizitza ekonomikoan parte duen osagarri oro (lurra, lan-tresneria, kapital-dirua) merkatura bihurtzen baitu: baita lanerako indarra bera ere. Merkatuaren erabatekotasun honexek zertzen du kapitalismoa produkzio-era espezifiko gisa. Sozialki, aldiz, oinarrizko bi *klase antagonikotan errotzen den *produkzio eta gizarte-moldea da: alegia, produkzio-bideen jabeenean eta proletarienean, lehengoek berenak dituztelarik lurra, lehengaiak edo lan-tresneria (produkzio-bideen *jabetza), bigarrenen lanerako indarra merkatuan eros baitezakete, beren enpresak erabiltzeko; bigarrenok, beregainki lan egiteko ez kapitalik eta ez produkzio-bide edo eskuarterik dutenez gero, bizi ahal izateko beren burua besteren eskuko eman beharrean daude.

Egon, inon ez dago kapitalismo huts-hutsik: kapitalismoarena interpretazio-kontzeptu orokorra da. Bi klase antagoniko nagusiren inguruan

beti dago klase gehiago. Lurralde industrialduetan, a.b., badira produkzio-bide indibidualen jabeak (artisans txiki, nekazari, etab.), besteren *eskulanik behar izaten ez dutenak. Alabaina, horiek ez dira izaten *gizarte kapitalistaren tipikoak, h.d., gizartearen tankera eta moldea erabakitzen dutenak, lehenagoko gizarteera batzutako hondarrak baino.

A) Kontzeptuaren zehaztapena

Kapitalismoa, hasieratik bertatik eta gero ere gehienbat, haren kritikariek erabili ohi duten kontzeptua da, konnotazio gaitzerizkorrez erabili ere. Zaila da, beraz, kapitalismoaren kontzeptu-mugaketa zehatz eta oso bat, hain zuzen hiztegi politikoan, zientzia historikoetan eta ekonomikoetan baino are gehiago, adiera arrunt zabalez eta gehienbat kutsu polemiko eta propagandistiko (ik. PROPAGANDA) erabili ohi baita. Ekonomista eta ekonomi historigileek berek, maiz, nahiago izaten dute beste kontzeptu batzuz baliatu: *«merkatu libreko *sistema», etab., operazionalagoak, h.d., zehatzagoak eta ez hain kutsatuak omen direlako eta kapitalismo kontzeptuaren aldean garbiagoak eta zientifikoki erabilkorragoak. Hala ere, R.H. Tawneyk ohartarazi zuenez, izena baztertu nahia askotan izana ahaztu nahia besterik ez da izaten eta kapitalismo kontzeptua gabe, duen eta aitortu beharra dagoen adina desegokitasunez ere, ezinezkoa litzateke joan den hiru mendetako europar historia ondo adieraztea.

1.- Izena

Kapitalismo/kapitalista hitzak lat. **Caput/Capita**, ganadu-buru eta Erdi Aroko **Capitale**, *jabetza-tik datoz, etorri. Artzain eta nekazarigizarteetan ohi ziren ganadu-maileguetatik dator apika: abere gutxi edo bature ez zuenak, artzain edo nekazari aberatsago batengandik zenbait buru (behi, ardi) hartzen zuen maileguz eta gero prestaziotan (kume, esne, haragi) ordaintzen zion. Prestazioen kopurua mailegatutako buruen (**capitale**) arauerakoa zen. Era berean, abereak, hots, abere-buruak, balio-konparaziorako ere balio zuen, diruaren modura, trukean eta salerosketan, dirudunari euskaraz «abersats» esaten baitzaio gaur arte.

Kapitalismo hitza L. Blanc-ek (1811-82) erabili du lehenengo aldiz, baina esanahi partzialean oraindik, *produkzio-modu modernoaren alderdi batzua adierazteko bakarrik; K. Marxen **Manifestu Komunistak** (1848) eta **Ekonomia Politikoaren Kritikak** (1859) oraindik ez dute ezagutzen kontzeptu hori, horren ordeko beste batzuk erabiliz: «produkzio-baldintza burgesak», etab. **Das Kapitalen** lehen tomoan (1868) «*ordenu kapitalista», «*gizarte kapitalista» formulak erabiltzen dira jadanik, hots, hitza adjektibo legez erabiliz beti ere, eta handik zabaldu da, gero, *pro-

paganda-literatura sozialistan, kapitalismo laburpen-formula substantibo gisa, orduko gizarteera eta ekonomia karakterizatzen zituen produkzio-modu espezifikoa izendatzeko. Kapitalismo izena, arestiko gizarte bizitza osotoro adieraz zezakeen kontzeptu arrunt baten bila sortutako laburpen-formula da, neologismoa, 90. urteetara arte ia *propaganda eta agitazio-literaturan bakarrik ezaguna, mende itzulera aldean poliki-poliki zientzietan ere onartua (W. Sombart, M. Weber, G. Schmoller-i eskerak batez ere). Hitza zientzietan sartu orduko, esanahia zehaztu eta mugatu beharra inposatu zen. Terminoaren esanahia, ordea, edukina alegia, ez dago bestela zehazterik, errealitate -azterketaz eta interpretazioz baino. Kapitalismo berbak adiera ezberdinak har ditzake, hortakoz, adierazi nahi den errealitatearen interpretazio ezberdinen arauera.

2.- Kontzeptu-diferentziak

Kapitalismo kontzeptu marxista/ez marxista, soviatarra/mendebal-darra, etab. berezi nahi izaten dira noizbehinka, batez ere bi joera seinaltatzeko, soziologian, historian, ekonomi teorian nahiz praxian, kapitalismoari buruz aritzeko orduan. Baina bereizkuntza honek aplikagarritasun geroz eta gutxiago ageri du zientzietan, autoreen arteko diferentziak ez baitoaz zehazki oinarrizko erdibikuntza horren hildoetatik. Egun, kapitalismoaren interpretazioaren historian dauden edonolako saio diferentteak, bi explikazio-modelo nagusitara bihurtu ohi dira.

a) Explikazio-modelu kultur historikoa, edo subjektibo-psikologikoa:

Explikazio-modelo honentzat, kapitalismoaren azpian dagoen ideia, arrazoia da inportantea. Kapitalismoaren bereizgarria, h.d., aldi historiko hau bere aurrekoetatik globalki bereizten duena, «izpiritu» ekonomiko berria da, lehenagoko *produkzioak ez bezala komertzialki *merkatu zabal-zabalera jotzen duena, hauzo-ekonomiaren gainetik; hots, enpresarien jarrera kolektibo berezia, irabaz-grina eta *jabetza-individualismoa, hain zuzen kalkulu arrazionaletan oin hartuz beti, produkzio eta trukaketa zirkuitu etengabearen aritzeko.

Izpiritu hori nondik sortua datekeen, *Erreformaren eraginetik eta bereziki *kalvinismo/puritanismotik (M. Weber), ala Erdi Aroko hirietako komunitate juduetatik (Sombart), eztabaida haundiak ibili dira. Zailtzarik ez dagoena, kapitalismoaren sorrerari nolana ere produzitzailen jarrera eta izpiritu-aldakuntza sakon batek lagun egin diola, *lanaren, ikerketaren, diruaren eta irabaziaren, negozioaren, pertsonaren beraren balioaren kontzeptuak arras begi berriz ikusiko baitira gizarte feudalarren (ik. FEUDALISMOA) aldean. Schumpeter metodo honetaz baliatu da, batez ere kapitalismoaren sorrera aztertzerakoan. Honen arauera, XIII. mendean hasita jadanik, hiritar *burgesiari, poliki-poliki baina lehiati,

*instituzio feudalak azpijaten ditu, Errenazimentua bitarteko, gizarte osoari «zibilizazio» berria inposatu arte, arrazionalismoarekin, enpirismoarekin zientzietan, etab., lehenago zalduneria feudalak bere izpiritua gizarteari ezarri izan zion eran. Schumpeter-en eritzian, kapitalismo hitzarekin adierazi ohi ditugun fenomenorik gehien-gehienak ageri-agerikoak dira jadanik XV. mendeko azken aldera.

b) Expplikazio-modelo ekonomikoa, edo objektibo-estrukturala:

Funtsean K. Marxek bere **Ekonomia Politikoaren Kritikan** finkatu zuen eran (ik. MARXISMOA) dihardu. Marxen ikuspide historiko materialistaren arauera, gizonak osatzen duten gizarteera, beraien borondatea gorabehera, produkzioaren baldintzek taiutzen dute *egitura jakin batekin, eta baldintzok berauek produkziarako indar materialen aldian aldiko aurreratze-mailak eta moduak erabakiak dira. Marxek, bada, kapitalismoa «produkzio-modu» berezi gisa, egitura sozio-ekonomiko globalizatza kontsideratzen du, multzo egituratu honetan produkzio-baldintza (erlatiboki) estatikoek eta produkzio-indar (erlatiboki) dinamikoek batasun dinamiko bat biltzen dutelarik elkarrekin, guztion batasun egituratu orokorrak ordean gizarteera jakin hau emanez, gizarte-formazio kapitalista. Marxen abiapuntua, gizona bere produkzio-harremanetan zein nolako baldintzetan kausitzen den, begiratzea da: produkzioa zentzu lazoan ulertuz, noski, h.d., gizonaren burruka guztia naturarekin, hura menderatzeko eta bereganatzeko. Burruka honetan eta, zehazkiago, *lan-ihardunaren ibilian-ibilian, ondasunen trukaketa eta *lanaren zatiketa uzten duen produkzio-bideen maila bat, tresnen *aurrerapen bat, sortu du gizonak. Zenbat eta garrantzizkoago bilakatu, produkzio-harremanetan, produkzio-bideen beren produkzioa, hainbat garrantzizkoago bilakatzen da produkzio-bideen *jabetza: horrexek erabakiko du produkzio-baldintzen nolakoa eta, azken finean, gizartearen moldea. Beraz, langilea -produzitzailea- bere tresnarekiko -produkzio-bideekiko- zein erlazio moldetan kausitzen den, bereizten dira gizarteera ezberdinak; hots, gizarteera bakoitzaren erabakiorra, produzitzailearen produkzio-bideekiko erlazio-modua da, hori ezberdina den arauera gizarteerak ere bata bestea-gandik bereizten direlarik. Langilea orain arteko gizarte guztietan beti inoren menpeko izan bada ere, kapitalismoaurreko gizarteetan ez bezala (feudalean, esate baterako: hein batetan produkzio-bideen jabe izanik ere, menpetasunean baitzegoen, lekuari itsatsirik, edo produktuen parte bat nagusiarri eman beharrik, etab.), kapitalismoan, *lana bera, *produkzioa, bai juridiko eta bai politikoki, berez librea da. Lan librea, eta lanaren trukaketa diruaren alde, lan alokatuaren aurretikoak dira, kapitala sortzeko aurrebaldintza. Baina, era berean, kapitalaren aurrebaldintza da orobat lan libre eta lanerako tresnen arteko etendura, hots, inor izatea produkzio-bideen jabe eta beste bat produzitzailea, lanerako indarra hari

saldu beharrean. Lanaren *alienazioa, hots, produzitzailearen eta produkzio-bideen arteko ebakidura, kapitalismo kontzeptu marxistaren funtsa bera da, interpretazio honentzat gizarteera bat bere baitan zertzen eta bereizten duena produkzio-modu jakin bakoitzeko jabetza-baldintzak baitira, jabetza baldintza hauen aldian aldiko modua hain zuzen. Horiek dira kapitalismoa gizarteera eta aldi historiko berezi gisa ezaguterazten dutenak, horiek, kapitalismoaren funtzionaera azaltzen dutenak, bai eta, halaber, gizartearen funtzionaera kapitalismoan ere.

Gaur egun, bai *Ekialde eta bai *Mendebaldean, zientzia ekonomiko eta sozialetako kapitalismo kontzeptua funtsean Marxek azaldu dituen oinarritzko datu estruktural berberetz osatzen da, datuon balorazioan eta handik ateratzen diren ondorioetan diferentziak egon arren, historiari eta *iraultza beharrari buruz bereziki.

II.- Kapitalismoa, sistema ekonomiko eta soziala

Kapitalismoa *sistema ekonomiko eta sozial global bat da, *merkatu-askatasunean eta produkzio-bideen *jabetza pribatuan, baina gaur finantzari kapitalean batez ere, oin hartzen duena.

A) *Ordenu ekonomikoa eta ordenu soziala*

Produkzioa lehen eta banakuntza gero orokorki ordenatzen dituen, kapitalismoan, merkatua da; eta, merkatuan, ordenu-printzipio nagusia, *konkurrentzia librea: konkurrentzia librez burukontrolatzen eta gidatzen den merkatu-ekonomiazko sistema da berez kapitalismoa. Alabaina, ez da bidezko kapitalismoa eta konkurrentzia librea, merkatu librea, berdintzea, kapitalismoaren apologistek egin nahi izaten dutenez: denak denen aurka aritzeko fasetik aspaldi sartu zen kapitalismoa *monopolio eta *elkarte ekonomiko haundien fasera, *Estatu-interbentzioenera orobat, kapitalismo izatea utzi gabe.

Enpresa lanari eta produkzio-ihardunari bagagozkio, irabazi ahalik haudienarako kapital-inbertsioa da ordenu-printzipio kapitalista nagusia: merkaduri produkzioaren lehen xede inmanentea irabazia da, konkurrentziak inposatzen duenez. Zenbat eta haundiagoa izan irabazia, gehiago izango da kapitala, errazago lortuko dira kredituak, bizkorragoa izango da berrikuntza teknologikoa eta indartsuagoa, berriro bueltan, produkzioa. Osagarri denak elkarri loturik dabilta *sistema dinamiko honetan.

Produkzio eta banakuntza-ordenuak, aldiz, *ordenu juridiko, sozial

eta politiko jakin bat suposatzen du aurretik: jabetza pribatuaren ordenua, *askatasun indibidualaren ordenua, kontratuak zeharo libreki egin ahal izateko *eskubidea, etab.. Ordenu sozial hau funtsean indibidualista da oinordetzarekiko *legeetan ikus daitekeenez, a.b., eta *Estatuak babesten du.

Sozialki, klase-gizartea (ik. GIZARTE-KLASEAK) da kapitalismoarena, gorago esan denez. Produkzio-harremanak bere gisa *-konkurrentzia bidez- ordenatzeko printzipioa duen moduan, *gizarteari ere, bere ordenua berak bila dezala uztea, printzipio liberal (ik. LIBERALISMOA) horixe da nagusitzen dena gizarte-antolaera sozial eta politikoan («utz egiten»). Gizartea, ordea, bi klase antagonikotan erdibiturik dago eta, beharrik, elkarrekin etengabeko burrukan, kapitalismoaren barne-*kontraesan nagusiagatik: produkzioak izaera sozial, komunitarioa duelako, irabaziak aldez pribatuki egiten direlako, produkzio-bideen jabetza pribatuaren arauera. Langileak ugazabaren menpean eta ugazabarentzat lan egiten du. Areago, merkaduri produkzioaren berezko barne-xedea irabazi ahalik eta haundienak ateratzea izanik, ahalik gutxiena ailegatzten zaio langileari, plusbalio ahalik eta haundiena hondar gera dadin inbertsio berrietarako. Beraz, *gutxiengo txiki baten (produkzio-bideen jabeek) du *gehiengoa explotatzen eta bere menpean lotzen; berak du produkzioa ere kontrolatzen, langileak ez baitu gestioan parterik. Klase bakoitzak bere *erakundeak sortzen ditu *(sindikatu, *Alderdi) eta klasearteko burruka, nolabait, ordenu kapitalistaren parte bilakatzen da.

B) Kapitalismoaren aurrebaldintza eta ezaugarri historiko arruntak

Kapitalismoa, *produkzio-modu edo gizarteera legez, aldi historiko legez ere, zenbait ezaugarri propioak bereizten du. Baina kapitalismoa, *bilakabide historikoan, zenbait aurrebaldintzaren buruan bakarrik eratu ahal izan da.

Aurrebaldintza kultural eta materialok seinala daitezke: 1) European lehenago inoiz ez bezalako izpiritu komertzial baten hedadura: izpiritu langile eta kalkulatzailer arrazionalista ēzezirik, menturazalea ere bai, ekin-tzalea, baikorra eta *aurrerapen-sineslea. 2) *Lanaren zatiketa, espezializazioa eta *iraultza teknologikoa (ik. TEKNOKRAZIA), produkzioa egiazko industria bihurtzea bideratu baitute. 3) *Merkatu zabal bat, *merkatalgoa hauzo edo ingurunez gaindi urrunera ere eramateko (beraz, komunikazio eta garriobideen aurrerabidea, etab.). 4) Arrazoi historiko ezberdengatik, bere lanerako indarra ugazabaren bati eskaini beharrean zegoen jendetza askirik egotea, ez zeukalako bere kontura lanean aritzeko modurik. 5) Populazio-ugalketa: 1800 eta 1900 artean bi aldiz eta erdi gehitu baitzen Europako populazioa (1800: 180 milioi; 1850: 266 milioi; 1905: 420 milioi).

Kapitalismoa izpiritu bat bai, baina batez ere ordenu ekonomiko bat da. Ordenu ekonomiko legez, **ezaugarri** arruntok ageri ditu: 1) Kapitala produkzio-faktore nagusia da, produzitzailearengandik aparte dagoena alegia, eta bera lehengoa. 2) Merkatu libreko *sistema. 3) Produkzio-bideen *jabetza eta manu pribatua, haiez nahi erara baliatzeko, irabazirako nahiz xahuketarako, horrek adierazten duen zuzenbide sistemarekin: alegia, jabetza pribatuaren babesa *Estatuaren aldetik. 4) Enpresarien, h.d., produkzio-bideen jabeen *botere ekonomiko eta soziala, botere politikoa orobat, beste klase eta sail sozialen gainetik. 5) Merkaduria bihurtu da langilearen lanerako indarra bera; lana, beraz, alokatua da.

III.- Historia

Kapitalismoaren historiak aldi ezberdinak ezagutu ditu bere *bila-kaeran, baina autoreen artean ez dago akordiorik aurrerabide hori nola epekatu. Epekatze klasiko bat W. Sombartena da:

A) *Lehen kapitalismoa*

Kapitalismo merkantil ere deitzen zaio. Zaila da kapitalismoaren hasiera zehatzik seinalatzea; lekutik lekura hasiera ezberdinak izan ditu gainera. Lehen kapitalismoaren exponente nabarrienak, nolnahi ere, merkatari haundiak izan dira. Lehen fase batetan artile eta zeta ehuleak, etab., Ipar Italian, Flandesen, Frantzia (Lyon), Hego Alemanian, Espainian, merkatariok maiz-sarri bankari ere berak izan baitira, enpresari eta produzitzaile ere beroriek bilakatu direlarik, edo berorien inguruko jendea (Sombartek, halere, kapitalismoaurreko zeritzon fase honi, XIII-XIV. mendeak aldera eta geroxeagorarte). Lehen kapitalismo hau, hein haundi batetan, protestante bilakatu ez diren lurraldeetan batik bat, industrializazioara iragan ordez, gainbehera sartuko da.

Horregatik, askok nahiago du kapitalismoaren hasiera geroago ezarri, *Erreforma ondorenetan edo Mundu Berria aurkitu eta gero hain zuzen. Kontzeptu-modu marxistan, kapitalismoaren hasiera, kapital-metatzearekin bateratu ohi da, izan ere. Honek, ordea, explikazio txit ezberdinak ditu: lur-errentatik bildu dela, ala *merkatalgotik gehiago, etab. Eztabaidarik badago, halaber, kapitalismo izena produkzio industrialerako soil mugatu, ala merkatalgora ere hedatu. Kapital-metatzean, ez da dudarik, faktore txit ezberdinek izan dutela parte. *Burgeseria merkatariak, lehen batetan, lekutik lekurako prezio diferentzien espekulazioz egin zuen dirua. Eguraldiagatik eta, *gerrengatik eta, urritasun larrienak edo-

non eta noiz-nahi ikusten zirenean, aski zen ugaritasunezko toki batetan gari piska bat erosi eta urritasuna zegoen beste batetan saltzea, sekulako irabaziak ateratzeko. Gero, Mundu Berriak sortu zituen irabazpide galantak explotatzeko, Indietako Konpainiak eratu ziren: Ekialdeko Indietako Konpainia ingelesa (1600), holandesa (1602), Indietako Konpainia frantsesa (1664); Caracasko eta Filipinetako Konpainia gipuzkoarrak XVIII. mendekoak dira. Zer esanik ez, banka ere Europa osoan biziki indartu dela aldi honetan. Eta, dena dela, XVI-XVIII. mendeetan hasi da gorpuzten kapitalismo zinez industrialia, *«manufakturak», fabrikak, ermandate edo gremioak suntsieraziz. Kapital-metatzea zertzen duena, inoren lepotik oso aberastea ez, baina jabetza biltzea baldin bada, besteen desjabetzea hortakoz, aldi honen azkenerantz kapitalismoa garbi inposatu da produkzio-modu berezi gisa: bakoitza bere olan, han-hemen sakanaturik, eta bere tresneriarekin, aritu ohi ziren artisauetatik, ugazabaren fabrika-bildura etorri da; langileak ez dira tresneriaren jabe, etab. Kapital-inbertsioak, merkatalgora barik, lantegietara itzuli dira.

B) Kapitalismo garaia

Industrialia ere deitua, XVIII. mendearen azkenetatik XIX. azkenetara doana da. Aldi honetan nagusitu da makineria, teknologia, produkzioan, inbentu tekniko berriei eskerrak: lurrun-makina (J. Watt, 1763), ehundegi mekanikoa (E. Cartwright erretoreak, 1786), goru mekanikoa, etab. Era berean, merkataua ere oso zabaltzen da eta banka indartu. Populazioa ugalduta bada, pauperismo izugarria gaineratu da Europa osoan, lanerako beso merkeak ugalduta eta baserrietatik haunditzen oraintxe ari diren kontzentrazio hiritar industrialetara bultzatuz: *proletalgoaren burruka eta ideia sozialistak (ik. SOZIALISMOA) berehala biztu dira. Alde honetan Ingalaterra dabil *aurrerabide kapitalista industrialaren buru. Kapitalismo garaia ezaugarri nabariak: 1) *Estatu liberalak ez du *produktzio eta banakuntza-prozesuan ezertarako parterik hartzen, jabetza eta produzitzaileen askatasuna garantizatzen ez bada (proletalgoaren kontra gehienetan). 2) Enpresa ugari sortzen da eta kupida gabeko konkurrentzia gertatzen da beren artean, denak denen aurka. 3) Enpresaria da kapitalismo garaiko figura zentrala: arriskatua, berrikuntzazalea, lehiatsu eta puritanoa. Industrializazioa eragin duena, gehiago izan da enpresari txikia, zeharbidez izan ezik, merkatal-kapital bildua baino. Marxek seinatu zuenez, «iraganaldiko modu bi» dago, ezpairik gabe, baina «bide egiaz iraultzailea», zerbait aberastu den eta irabaziez baliatuz produkzio-molde kapitalistara itzuli den enpresari txikiarena izan da. 4) Enpresari-tipo berri hau izan da posibilitatu duena teknika berrien asmatzea eta merkatu berrien irekitzea. 5) Klase proletarioaren agerpena, artisauren hondamendiak, nekazarien askapenak eta populazioaren ugaltzea.

ketak ekarria: lehenik nagusi feudalarentzat, edo merkatari haundiaren enkarguak eginez, lanean aritzen zirenak, nagusiaren menpetasun hartatik «askatu» ziren, baina produkzio-biderik (lur, tresna, kapitalik) berek ez izatean, horiek zituenaren menpean sartu beharra zuten, guztiz «libre», bizi ahal izateko. Kontratu eta lan-baldintzak, enpresariak diktatzen ditu: 16 orduko eguna, ume eta emakumeen lan gogorra, etab. 6) Enpresa-kontzentrazioa, geroz eta enpresa edo *elkarte gutxiago eta haundia-gotan. 7) Aldizka sortzen diren *krisi ekonomikoak, *langabezia eta miseria gorriaren ondorioekin.

C) Beranduko kapitalismoa

Edo, baita **moderno**a ere deitua 1870 aldetik honerakoa da. (Hilferding: kapitalismo finantzarioa; Lenin: *inperialismoa). Bi fasetan berezi ohi da: II. *Mundu-Gerraren aurrekoa eta ondokoa. Kapital industrialia ez, baino finantzarioa da nagusi eta, beraz, Hilferdingek erakutsi bezala, produkzio-bideen jabetza eta zinezko kontrola berezituz eta banatuz doaz. Marxek igarri eta iragarri bezala, kapital-kontzentrazio eta zentralizazio prozesua txit indartuz joan da XIX. mendearen azken aldetik aurrera, konkurrentziaren fasetik *monopolioanera etorriz. Bestalde, kapitalismoak aldizka geroz eta *krisi gaitzagoak harrapatzen zituen, krisiak erremediatzeko *Gobernuak produkzio-prozesuan eskuhartzera behartuz, 1929-34.eko mundu-krisiak ia produkzio-modu kapitalistak bere mugak jo zituela, pentsarazi baitzion askori. Krisiok superprodukzioak sortzen zituen. Teknologiak eta *lanaren arrazionaltzeak, zegoen erosmenik baino gehiago jasotzen zuten produkzioa (une berean kapital-kontzentrazioa bizkortzen zutela, krisiak itotzen zituen enpresen *merkatua biltzen zelarik). Kapitalismoak *Hirugarren Munduko *lurralde azpiarreratuetara jo du, orduan, lehengai merke bila, hainbat kostu gutxiagoz produzitzeko eta, beraz, merkeago eta errazago saltzeko. Hedakuntz politika -hots, *inperialismo- honek, *Estatu kolonialak (ik. KOLONIALISMOA) behin eta berriro *gerrara eramanez beren artean, 1970 aldean hasitako *kojuntura gora hautsi zuen Lehen *Mundu-Gerrara arte, ondoko krisiak Europan bertan gizarte liberalaren oinarriak berak porrokatu baititu, *diktadura faxistak (ik. FAXISMOA) ezarri.

Fase honetan, lurralde industrialduetako kapital-soberakin ugariak, ez baitu merezi bertako inbertsioetan enplegatzea irabazi kaskarrak baidiz ezin atera daitezkeekako (Estatuon neurri protekzionista, kartel, etabarreatatik), exportatu egiten dira, irabazi haundiagoen bila. Bankuen eta industriaren arteko «pertsone-batasuna», bion «pertsone-batasuna» *Gobernuarekin bilakatzen da: urtu egiten dira *politika eta ekonomia, **laissez-faire** printzipio liberala xahutuz. Fase honetan, bada, *konkurren-

tzian ari diren enpresa ezberdinen lekuan, enpresa haundiak, internazionalak, nagusitu dira erabat (*monopolio eta oligopolioak), finantzar kapitalak sostengaturik. Hauek, hainbatetaraino bat egitera iritsi dira Estatuekin eta «*interes komunarekin», non Gobernuak ez baitaukate, honez gero, eskua sartu gabe geratzerik eta ez enpresa ahalguztidun horien aurka ezer egiterik. Bat da produzitzailea (enpresaria), beste bat finantzaria, beste bat kargudun politikoa edo botereduna: baina *boterea, *konjuntura politikoz, plan indikatiboz, *sistema fiskalez, erosle haundiena bera bilakaturik, zuzen-zuzenean partaide bilakatu da produkzio-prozesuan, nazionaldu gabeko sektoreetan ere. Kapitalismo berri baten aurrean aurkitzen gara jadanik: Estatu-kapitalismo edo *neokapitalismo esan zaionaren aurrean, hain zuzen.

SOZIALISMOA: GIZARTE-KLASEAK: NEOKAPITALISMOA. IMPERIALISMOA: KOMUNISMOA.

Bibliografia

Brinkmann, C. (1925): *Die moderne Staatsordnung und der Kapitalismus*. Tübingen. **Dobb, M.H.** (1946): *Studies in the Development of Capitalism*, London. **Hayek, F.A.** (1954): *Capitalism and the Historians*. Chicago. **Hilferding, R.** (1910): *Das Finanz Kapital. Eine Studie über die jüngste Entwicklung des Kapitalismus*, Vienna. **Knoll, A.M.** (1953): *Das Kapitalismus-Problem in der modernen Soziologie*, Vienna. **Marx, K.:** *Das Kapital*, I, II, III. tomoak, 1867-1885-1894. **Mueller-Armack, A.** (1931): *Entwicklungsgesetze des Kapitalismus*, Berlin. **Passow, R.** (1918): «*Kapitalismus*». *Eine begrifflich-terminologische Studie*, Jena. **Rostow, E.W.** (1960): *The Stages of Economic Growth*, Cambridge. **Schumpeter, J.** (1912): *Theorie der wirtschaftlichen Entwicklung*, Leipzig. **Schumpeter, J.** (1942): *Capitalism, Socialism and Democracy*, New York. **See, H.** (1928): *Les Origines du Capitalisme moderne*, Paris. **Sombart, W.** (1902): *Der moderne Kapitalismus*, Leipzig. **Strieder, J.** (1904): *Zur Genesis des modernen Kapitalismus*, Leipzig. **Sweezy, P.M.** (1942): *The Theory of Capitalist Development, Principles of Marxian Political Economy*, New York. **Tawney, R.H.** (1926): *Religion and The Rise of Capitalism*, London-New York. **Weber, M.** (1904): *Die protestantische Ethik und der Geist des Kapitalismus*, Tübingen. **Weber, M.** (1924): *Wirtschaftsgeschichte*, München. **Wright, D. McC.** (1952): *Capitalism*, New York.